

2. BALOREZKO PROPOSAMENA

Enpresak dakigun bezala pertsonen beharrak eta nahiak asetzen saiatzen dira. Horretarako, ondasun eta zerbitzuak ekoizten dituzte, baina aurretik etorkizunean kontsumitzaileak izan daitezkeen ezaugarriak aztertzen dituzte. Kasu honetan, gure enpresak, hau da, Inuu Yimaado aplikazioa asmatu dugunok, etorkinek bizileku berrian egokitzeko arazoak dituztela identifikatu dugu. Beste modu batera esanda, bizitza berria hasteko erraztasunak behar dituztela aztertu dugu.

Hasteko, argi dago etorkinek beraien jaiotokia utzi eta beste toki batera bizitzera joatea erabakitzeke beraien egoera erabat zaiala izan behar zuela. Besteak beste, tratu txarrak, indarkeria, eta gerrateak jasan behar izan dituzte. Horregatik, gure buruari galdetu genion zer egin dezakegu beraiei laguntzeko?

Behar hori asetzeko, modu asko daudela ondorioztatu genuen. Izan ere, laguntza medikua, hezkuntza, lana eta elikagaiak beharko dituzte besteak beste. Baina, zein laguntza sozial eskaintzen zaie? Bat ere ez. Hori dela eta, gure enpresaren helburua arlo sozial eta gizarte alorrean sor daitezken arazoak konpontzea da; hau da, erabat integratuak egoteko ekintzak sortzea litzateke gure helburua.

Esan beharra dago, gure enpresaren balio moralen artean daudela elkar-laguntzea, elkartasuna, duintasuna, errespetua eta maitasuna. Horregatik, kanpotik datozenen egunerokoa errazteko, enpresa sortu dugu. Beste modu batera esanda, beraien debora librean lagunak egin, euskal kultura eta tradizioa ezagutu eta garrantzitsuena, babestuak eta maitatuak sentitzeko ekintza multzoa antolatzen ditugu.

Hau guztia esanda, ondorioztatu daiteke, Inuu Yimaadoren baliozko proposamena herritar guztion artean elkar-laguntzea eta gure herrialde, gizartea, garatzea da. Izan ere, gaur egun, munduan bidegabekeria ugari gertatzen dira, baina guztiok bat egingo bagenu egoera zail horiek murrizteaz gain munduko herritar guztiok zoriontsuak eta errespetatuak izatea lortuko genuke. Beraz, Inuu Yimaado aplikazioa deskargatu eta ekintzetan parte hartu ezkerok, etorkinen bizi-kalitatea hobetu eta enpresak aurrera ateratzea lagunduko zuten bezeroek.